

"BERTSOLARITZA GERNIKA-LUMON **2014-2015 EGITASMOA**

AURKIBIDEA

1.- SARRERA

2.- HELBURUAK

3.- NOLA GARATU DEN

3.1.- Bertsozale elkartearekin elkarlanean

3.2.- BIErekin elkarlanean.

4.- ERAGILEAK

5.- KRONOGRAMA

6.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

7.- AURREKONTUA

1. **ERANSKINA:** Bertsozale elkartearen “Gu ere bertsotan egitasmoa”
2. **ERANSKINA:** Bertsozale elkarte eta Udalaren arteko hitzarmena (2014-2015)
3. **ERANSKINA:** Bizkaiko Ikastolen Elkartearen proposamena 2015erako

1.- SARRERA

Urtero berriztatzen den egitasmoa eta konpromisoa dugu hau. 2011ra arte Bizkaiko Ikastolen Elkartearen koordinazioarekin eta erakunde honetan lanean aritu izan zen Jon Lopategi Jaunaren ardurapean, udalerriko eskoletan/institutuetan garatzen izan dena.

2011-2012 ikasturterako aldaketa etorri zen eta Bertsozale Elkartek hartu zion lekukoa Bizkaiko Ikastolen Elkarteari eskoletako sustapen lanari zegokionean. Bertso Idatzien txapelketarekin berdin eutsi zion BIE-k.

Bertsogintzarekin loturak landu dira egitasmo honen bitartez eta parte hartuko duten “ikasle” horiei “Bertso Eskola Elkarterako” zubia eskainiko zaie. Beraz, egitasmo honek, ume bertsozaleak hezitzeaz gain, bertsolari landareak loratzea dakar urteak pasa ahala.

Azken lau urteotan, gorpuzten joan den jarduera bat egonkortu ahal izan da, hau da, “Gu ere bertsotan” egitasmoa, Bertsozale elkarteak irakaskuntza zentroetan garatzen duena. 2014ra arte zentro batzuetan egiten zena, orokortu egin ahal izan da LH azken ziklorako eta DBH mailarako, Euskara Arloak eta Bizkaiko Bertsozale Elkartek 2014-2015 ikasturterako sinaturiko hitzarmena bitarteko.

2.- HELBURUAK

Hurrengo xede berezi hauek dira egitasmo honi dagokionean:

- Euskal hizkuntza sendotzea, bertsogintzak aisialdirako eta hizkuntza bizia lantzeko ematen dituen aukerei eutsiz.
- Eskualderako BIEk daukan "Bertsolaritza Gernikan 2013-2014" egitaraua lagundu.
- Bertsozale elkarteak Gernika-Lumoko irakaskuntza zentroetan garatzen duena proiektua lagundu: "Gu ere bertsotan 2013-2014".
- Bertsolaritza belaunaldi berrietan sustraituz bertsolari berrientzat bideak jorratu (bertso eskolak indartu).
- Urteko jai ospakizunekin lotuta, bertso-koplak kaleratzea Bertso Eskola Elkartearen bitartez.

EBPN-ri jarraiki, lantzekoak:

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana daukagu indarrean 2014-2017 eperako eta, horren arabera, 2015eko Kudeaketa Plana eratu eta aintzat hartu dira hurrengo helburu eta ekintzak:

Helburu estrategikoa: Euskararen transmisioa / ondorengoetaratzea

Esparrua:

2. Irakaskuntza

2.1. Euskararen jakite-maila eta erabilera hobetzeko prestakuntza sendotu eta metodologia eta baliabide berriak garatzea

2.1.8. Ikastetxe bakoitzean hizkuntzaren irakaskuntza eta erabilera uztartuko dituen jarduera-plangintza egitea, hau da, hizkuntza-proiektua egitea

- 2.1.8.2.- Ikastetxeetan euskararen normalkuntza planak garatzeko diru laguntzak eskaini eta planak koordinatu

- 2.1.8.3.- Udal Eskola Kontseilutik koordinatzen ez diren eta euskaraz garatzekoak diren eskolaz-kanpoko kultur ekintzetarako diru laguntza deialdia

2.4. Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea

2.4.4. Irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietarako euskara harremanhizkuntza gisa bultzatzea (bestelako jardueren egitarau eta programa zehatzen bitartez)

- 2.4.4.1.- Bertsolaritza Gernika-Lumon urteroko programa sustatu eta lagundu ikastetxeetan

3.- NOLA GARATUKO DEN

3.1.- BIErekin elkarlanean garatuko dena (begira 3. eranskina):

Iraupena.- Ikasturte osoan (bertso-paperak eta bat-bateko bertsogintza lantzen)

Txapelketak.- Bizkaiko bat-bateko eta Bertso idatzien txapelketetako zenbait ekitaldi izango dira Gernika-Lumon:

- Maiatzaren lehenengoetan, Gernikako Seber Altube ikastolan Bertso idatzien eskualdeko kanporaketa.
- Maiatzaren azkenerako, Bizkaiko Bertso Idatzien Finala Gernika-Lumon.

3.2.- Bertsozale elkarteak ikastetxeetan garatuko duena (begira 1. eta 2. Eranskinak, proiektua eta hitzarmena):

Iraupena.- Ikasturte osoan, hurrengo koadroaren araberrako taldeak eta orduak:

IKASTETXEA	MAILA	TALDE KOPURUA	ORDUAK ASTEAN	AURREKONTUA
Gernika BHI	BBT taldea	2	2	2.294,00 €
San Fidel ik.	6.maila	2	1	1.860,00 €
San Fidel ik.	BBT taldea	1	1	1.147,00 €
Mertzedee Ikastetxea	6.maila	1	0,5	930,00 €
Seber Altube	6.maila	2	1	1.860,00 €
Allende Salazar	5 eta 6.maila	3	3	5.580,00 €
Barrutia eskola	6.maila	2	1	1.860,00 €
		13 talde	9,5 ordu astean	15.531,00 €

Jarduerak.- Ikasturtean zehar garatuko direnak:

- Asteroko saioak zentroetan, CDak eta DVDak bitarteko.
- Beste batzuk: irratsaioa, neguko eskea (koplak), bertso paperak, ipuina, bertso eskolarako zubi-lana (bertso kantaldiak, bilbertsoak,...).

4.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

- Euskara Zerbitzua: koordinazio lanak, azpiegitura eta diru laguntzak bideratzea.
- Bizkaiko Ikastolen Elkarte: Bizkaiko Gaztetxoen Bertso idatzien eta Bat-batekoen kanporaketak eta finalak.
- Bertsozale elkarte: bertso klaseak ematea (eskoletan eta barnetegietan) eta Gu ere bertsoan proiektuaren garapena zentroetan.
- Gernikako Bertso Eskola Elkarte: ikastetxeetan landatutako bertsolari gaztetxoetatik Bertso eskolari eusten diotenei harrera egin eta Bertso eskolaren dinamikan integratu.

5.- KRONOGRAMA

JARDUERAK (2015)	Urria	Azar	Aben	Urt	Ots	Mart	Apir	Maia	Eka	Uzt	Abuz
Eskoletan lantzea (Bertsozale Elk)											
Ikastaroak (Bertsozale elk.)											
Ekitaldi bereziak (BIE)											
Gernikako Bertso eskolan lantzea											

6.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Xede taldea eskoletan.- DBHko 300 ikasle izango dira parte hartuko dutenak Bertsozale elkartearen egitasmoan:

- San Fidel Ikastola: 3 talde (70).
- Seber Altube ikastola: 2 talde (45)
- Gernika institutua: 2 talde (50).
- Allende Salazar ikastetxea: 3 talde (70).
- Barrutia ikastetxea: 2 talde (45)
- Mertzede ikastetxea: talde bat (20)

Bestalde, BIE-k garatuko duen bertso idatzien txapelketarako 200 bat izango dira partaide.

Adierazleak:

Egitasmoaren arrakasta ez da berezko gauza bat, batik bat irakaskuntza zentroen inplikazioagatik baino. Arestian aipatu dugunez, egitasmo honetan partaide diren ikasleek **ikastorduetan** txertatuta dituzte horretarako orduak eta, hori irakaskuntza zentroen eskumenekoa izanik, eskertzekoa da hain jarrera baikorra izatea. Adierazleetako bat: eskola guztietatik zenbatek parte hartzen duten.

7.- AURREKONTUA

Gastuak

BIE-ri zuzendutako diru laguntza:	700
Bertsozale Elkarteari diru laguntza (eskoletako taldeen dinamizazioa – Bertsolaritza eskoletan)	9.300
Publizitatea (Kultur Etxea Fundazioko azpiegitura)	0
Guztira gastuak	10.000

Gernika-Lumon, 2015eko urtarrilean.

Esperanza Uriarte Erdaide
Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria

1. ERANSKINA

Bizkaiko

Bertsozale

Elkartea



GU ERE BERTSOTAN GERNIKAKO IKASTETXEETAN

2014-2015 IKASTURTERAKO

EGITASMOA

➤ SARRERA

Aurreko ikasturteetan egin legez, aurten ere lehen hezkuntzako hirugarren ziklorako proiektu bat dugu esku artean: GU ERE BERTSOTAN.

GU ERE BERTSOTAN iaz abiatu genuen proiektua da. Bertsolaritzaren curriculumaren oinarriak eta urteek ematen duten esperientzia kontuan harturik, proiektua hobetuz eta sendotuz doa, bide zaharrak gaurkotuz eta berriak sortuz. Horren emaitza, aurtengo materialaren uzta oparoa dugu. Ohiko liburu eta CDekin horniturik etortzeaz gain, sekuentzia didaktikoen egiturari dagokionez ikaslearen parte hartzea eta ikaskuntza kontzientea ageriago dakar eta gero eta garrantzi handiagoa duen teknologia digitalerako baliabide ugariagoak dakartza. Izan ere, bertsolaritzak eta ahozketasunak ezin dute aurrerapen pedagogiko zein teknologikoen trena galdu, XXI. mendeko ikasleentzako erakargarri suertatuko bada.

Bertsolaritza eskola eremura ekarrita, euskararen ikaskuntzan hizkuntzaren erabilera praktikoari dagozkion esparru berriak zabaltzen dira, normalean guk dugun diglosia egoeran jorratzen ez direnak. Hitzarekin eta hizkuntzarekin jolasten dugun bitartean, bertsoekin landu litezkeen hainbat esparruri ekiteko aukera jarriko da ikasleen eskura: euskara, kultura, musika eta trebetasun pertsonal eta sozialak (jendaurreketasuna, auto-estimua, elkarkidetzak, ...).

Era berean, helburuetan ikasleen ahozko komunikazio-gaitasuna lantzen duen metodo pedagogikoa jarriko dugu abian, hau da, bertsolaritzarekin batera ahozketasuna izango dugu helburu, gure herri eta hiri gehienetan herren dugun ahozko hizkuntzaren arloa jorratzeko asmoz. Horiez gain, idatzizko komunikazio-gaitasuna eta sormena ere landuko dira, aurrekoaren osagarri direlako.

Euskararen ikaste-irakaste prozesua paradigma estrukturaletan oinarritua izaten da gehienetan gure ikastetxeetan, gramatika eta abarrek honetan izan duten pisuarekin. Honi guztiari bere garrantzia kendu barik, nabaria da gaztetxoek “arrakastaz” komunikatzeko, hau da, entzulearengan

eragin, zirrara edo edozein emozio sortarazteko, behar dituzten baliabideak eskura jarritz, dauzkaten gabeziak arinduko dituen metodo eraginkor bat oinarritzat izan behar dutela. Izan ere, gero eta mintzamolde eta estrategia

urriagoak ditugu gura duguna euskaraz era egokian adierazteko. Gure aldetik, ezinbestean konpondu beharreko desoreka horri aurre egitera gatoz.

➤ **BALIABIDE MATERIALAK**

5. eta 6. mailetan lantzeko GU ERE BERTSOTAN proiektua dugu eskura. Proiektu honek, bertsolaritzaren bidez ikasleek euskararen erabilpen normalizatuan parte hartzea du helburu, modu motibagarri eta atseginean euskara bizia ikasi eta landu dezaten. Halaber, bertsolaritzaren bidez lantzen diren musikaltasuna eta trebetasun pertsonal eta sozialak ere kontuan hartzen dira.

Hauek helburuak bete ahal izateko liburua, bertsolaritzaren curriculumean oinarrituta dago.

Ikasturtean zehar hauxe da erabiliko dugun materiala:

- ✓ GU ERE BERTSOTAN liburua.
- ✓ Bertso zahar eta kantekin osatutako audio eta bideo CDak.
- ✓ Urtean zehar irakasleak eskura daukan material osagarria, eta ikasleen artean erabili litekeena: CDak, DVDak, liburuxkak, artikulak,...

Hau guztia garatzeko gelako lana urritik maiatzera arte luzatuko da, eta irakaslea asteen behin agertuko da ikastetxera.

➤ **SEKUENTZIA DIDAKTIKOEN DESKRIPZIOA**

GU ERE BERTSOTAN metodoan, helburu komunikatibo bana lantzen duten bederatzi sekuentzia didaktiko daude, lanketarako hainbat atalez horniturik.

Sekuentziok aurrezagutzetatik abiatzen dira eta bertsoen munduan barneratzeko ondoko bide logikoa daramate:

1. Lehen lehenik ikasleek zer dakiten ikusteko aurre-balorazio bat egiten da, dakitenaren ezagutza kontzientea izan dezaten. Oinarri hori izango dute abiapuntu.
2. Aurrezagutzak aktibatuta, materialean datozen ereduak jasotzeari ekiten diogu, ikasleek haiekin goza dezaten. Horretarako ikasleentzat esanguratsuak diren ereduak aukeratzen ahalegindu gara.
3. Ereduok aurkeztu ondoren, bakoitzak dituen ezaugarrien arabera lanketa egiten da, ereduon egituraz jabetuz, hori dena sormenari begira.
4. Aurreko oinarrietatik abiatuz, ikasleak ekoizpen berriari ekingo dio, eta bere sormenaren bitartez testu berriak barneratu dituen baliabideak adierazten ahaleginduko da.
5. Bere lanaren emaitza jendarean aurkeztuz, bertsolaritzak eta ahozkoitasunak hain agerian duten plazako egoera simulatuko da.
6. Azkenik, ikasleak eta taldeak bere jardura ebaluatzeko aukera izango du, taldean ikasi eta barneratu dutenaz kontziente izan daitezen. Horretarako ahozko balorazioak, kontrol zerrendak, galdetegiak, e.a. erabiliko ditugu.

Edukiei dagokienez, landuko diren sekuentziak hauek izango dira:

1- SAIOZ SAIO: Bertso-eredu errealak aurrean dituztela, ikasleentzat ezezaguna den mundu baten ikuskera adieraziko zaie, hainbat arlotan arreta jarraziz: bertso saioen egitura, kantatzeko modua, bertsolariak, gai-jartzaileak, saioen izaera, e.a.

2- GEURE BURUARI: Kopla txikien ereduak eta bertsoen sorkuntzarako oinarritzko teknikak (doinua, neurria eta errima) aurkezturik, ikasleek bere lehen ekoizpena burutuko dute, eta jendaurrean bertsoak era egokian kantatzeko baliabide batzuk emango zaizkie: jarrera, kantaera, gorputzaren erabilera egokia, keinuak, e.a.

3- EUSKARATIK ETA EUSKARAZ: Munduko hizkuntzek duten egoera (bertan euskara kokaturik), eta bertsolariek euskararen inguruan egindako bertsoen ereduak aurkezturik, ikasleek euskararen egunerako ekitaldia prestatu beharko dute, aurreko sekuentzietan landutako baliabideak erabiliz.

4- IRRATSAIOA: Aurretik egindako irratsaio bat eredutzat aurkezturik, lanketa jakin bati jarraituz bertso-irratsaio bat egitea izango dugu helburu. Bertan eskolan egiten diren ohiko bertso-sortez gain, bertso-asmakizunak, bertso-jokoak, bertsolarien biografiak, euskal kanta ezagunak.... landuko ditugu.

5- NEGUKO ESKEA: Helburua eskeko koplak egin eta abestea da. Landuko diren edukiak: kopla handia, euskal ahozko tradizio zaharra, pertsonaren eta egoeraren arabera gauzak eskatzeko moduak, jendaurrean kantatzeko jarrerak lantzea... Hori guztia, ikasleak praktikan jartzea dugu helburu.

6- BERTSO PAPERAK: Hasieran aurkezten den aukeratako bat harturik, komiki eta bertsoetako ereduak eta biografia batzuen arabera, gure bertso-paperak egiteko lanketa egingo dugu. Azken helburua bertso paperak idaztea da.

7- IPUINA: Ereduak (bertsoz zein hitz lauz) aurkezturik, ipuinaren egituraz eta ezaugarriez jabetuko gara, eta baliabide horiekin ikasleek bertso-ipuina sortuko dute.

8- BERTSO ESKOLAK: Helburua Euskal Herriko bertso-eskolak ezagutzea da, bai eta joko batzuen bitartez idatzitik bat-batekora pasatzea ere.

Horrez gain, liburuaren amaieran gehigarri batzuk datoz, eta horien artean zera topa dezakegu: bertsolaritzaren oinarri batzuk (fonologia eta fonetika, errima familiak e.a.), nire txokoa (norbere bertso hautatuak eta datu garrantzitsuenak idazteko, portfolio gisa), azken ebaluazioa (prozedurena zein edukiena).

➤ JARDUERA OSAGARRIAK

IRRATSAIOA

Irratsaioaren sekuentzia didaktikoari tarte berezia eskaintzen diogu daukan garrantzia dela eta. Bizkaia Irratiarekin lankidetzan ZORTZIKO TXIKIA irratsaioa grabatzen da astero-astero azarotik maiatzera bitartean. Aste bakoitzean ikastetxe batek hartzen du parte. Irratsaioari garrantzi handia ematen diogu gelako lana kanporatzen laguntzen digulako. Gure lana gurasoengana eta orokorrean gizartera zabaltzeko bideetako bat da, eta neurri berean ikasleak irratigintzaren bitartez ahozketasunaren munduan murgiltzen dira.

Irratsaioari esker ikasleekin lanketa berezia egiten dugu, batez ere trebetasun pertsonalen gainean. Horren bitartez, jendaurrekotasuna, ahoskatzea, taldekako lana,... eta bide batez komunikabide euskaldunen presentzia etxeetan zabaltzea lortzen da.

BERTSO KANTALDIAK

Urtean zehar kantaldiak egingo dira ikastetxe guztietan. Horretarako Aitor Rubio kantari eta gitarra jolea hurreratuko da geletara. Ikasleek kurtso hasieratik ikasitako bertso eta kantak abestuko dituzte kantariarekin

batera. Kasu batzuetan ikasleen produkzioa ere gitarra hotsez lagunduta aireratuko da. Saio horien bitartez, Euskal Herrian kanturako dagoen zaletasuna gazteen artean ere sustatzen da. Motibagarri eta arrakastatsua suertatzen da berau.

Aipatutako saio horiek, bertsogintza lantzen dabiltzan ikasleei bideratuta egongo dira. Bestela egin gura izanez gero, bertsolaritzako irakasleari jakinarazi beharko zaio.

BERTSO SAIOAK

Horrela eskatzen duten ikastetxeetan bertso saioak burutuko dira.

Bertso saioen helburua ikasleak bertsolaritza bere esparru naturalean bizitzea da. Bertso saio batean dauden elementu guztiez jabetzen dira: gaiak, gai jartzailea, bertsolariek erabilitako baliabideak, bertsotan egiten diren hainbat ariketa, entzulearekiko komunikazioa... Saio batzuetan, gaiak ikasleak jarriak izaten dira, eta ausartuz gero abesteko aukera ere izango dute. Parte hartzen duten bertsolariak gazteak izaten dira, ikastetxe zein bertso-eskoletan bertsotan ikasitakoak. Bertsolariekin egonda eta euron lana aurrez aurre ikusita, ikasleen bertsotarako motibazioa areagotu egiten da.

Ikastetxeak izango dira bertso-irakaslearekin batera bertso saioa noiz egin erabakiko dutenak. Gehienetan egun berezien inguruan burutu ohi dira: eskolako jaia, euskararen astea, e.a.

BILBERTSOAK

Ikasturtearen amaieran gelaz gela Bizkaiko ikastetxe guztietan batutako lanarekin liburu bat argitaratuko da. Orrialde bakoitzean ikasle taldearen argazkia eta bertsoak edo koplak ikus daitezke. Bertsolaritza euren gelako gauza baino gehiago dela konturatzen dira, askok beste

ikastetxeetako lagunak ere ikusten dituztelako. Ikasturte osoko lanaren erakusleihu txiki bat da.

Bilduma hau ikasle bakoitzak etxera eramaten du oroigarri legez, eta horrela gurasoak euren seme-alabek bertsolaritzarekin duten harremanaz jabetzen dira, ikasturtean egindakoaren lagin txiki-txiki bat baino ez bada ere.

BERTSO TOPAKETAK

Ikasturteari amaiera egokia emateko, hainbat ikastetxetako ikasleak elkartzen dira jai giroan ikasturtean zehar egindako lanaren errepasotxoak egiteko. Egun horri BERTSO TOPAKETA izena ipini diogu. Bertan bertso saioa, antzerki emanaldia, kantaldia, ikastetxeetako ikasleen parte-hartzea egiteaz gain, GU ERE BERTSOTAN proiektuan parte hartu duten ikastetxeei oroigarri bana ematen zaie.

Orain arte balorazio oso baikorra egin dute, bai ikastetxe eta bai ikasleen aldetik, bertan sortutako giro eta harremanak aurrera begirako motibazioa izanik.

BAT- BATEKOTASUNA LANTZEKO TALDEAK

Ikastetxe batzuetan eta ikasleek horrela nahita, ikastorduz kanpo bertsotan bat-batean trebatzeko taldeak sortzeko aukera egongo da. Bat-bateko taldeek ikastetxe eta bertso-eskolen arteko lotura bultzatzea dute helburu, bertsotarako talentu berriak sortzearekin batera.

Bat-bateko taldeei loturik, Bizkaian zehar barnetegi batzuk antolatzen dira, eta talde horietako ikasleek parte hartzeko aukera izango dute. Barnetegi horien helburuen artean, ikasleek bat-batekotasuna eskuratzeaz gainera, elkar ezagutzea eta ondo pasatzea dago.

Hala nahi lukeen ikastetxeak bertsolaritza irakasleari jakinarazi beharko dio.

Proiektu eta erronka hau bideratu eta aurrera eramateko, metodo honetaz jakitun diren irakasle kualifikatuak (pedagogia eta hizkuntza tituludunak) ditugu gure esku, asteroko koordinazio lanean batzen direnak. Proiektu honetan, Ander Elortegi ibiliko da irakasle lanean, Irune Soto transmisio eragilearen gain-begiradapean.

Kristina Somozas Romero
Bizkaiko Bertsozale Elkartea
bizkaia@bertsozale.com
946812711
www.bertsozale.com

2. ERANSKINA

**GU ERE BERTSOTAN 2014-2015 PROGRAMA GERNIKA LUMOKO
IKASTETXEETAN INPLANTATZEKO HITZARMENA, BIZKAIKO BERTSOZALE
ELKARTEAK, GERNIKA LUMOKO UDALAK ETA GERNIKA-LUMOKO KULTUR
ETXEA FUNDAZIOAK EGINA**

Gernika Lumon, 2014kon bildurik,

Gernika Lumoko Udala (helbidea: Foru Plaza 3. zk./ I.F.K.: P-4805500-H) eta beronen izenean Jose Maria Gorroño N.A. Zk: 72243666-E.

Gernika-Lumoko Kultur Etxea Fundazioa (helbidea: Foru Plaza 2 zk. (I.F.K.: P-9805503-A) eta beronen izenean Naiara Urberuaga andrea N.A. zk. 30691959-T.

Asier Ibaibarriaga Apoita, adinez nagusia, Ermuan bizi dena eta 15392650S zenbakidun nortasun agiria duena.

ESKU HARTU DUTE

Gernika Lumoko Udalak (Aurrerantzean Udala) eta beronen izenean Jose Maria Gorroño alkateak. N.A. Zk: 72243666-E...

Gernika-Lumoko Kultur Etxea Fundazioak (aurrerantzean Kultur Etxeak) eta beronen izenean Naiara Urberuaga Fundazio-Buru andreak

Asier Ibaibarriaga Apoita jaunak, Bizkaiko bertsozale elkartearen (aurrerantzean BBE) lehendakaria denez, haren izenean eta ordezkari lez.

Hiru ordezkariak elkarri behar besteko gaitasun juridikoa aitortzen diote eta dokumentu honetan jasotzen den konpromisoa izenpetzea erabaki dute, horretarako elkar hartuta HITZARMEN hau sinatuz.

AZALPENAK

I. Jakina denez, Jauralaritzaren Kontseiluak 2012ko uztailaren 24an onartu zuen ESEP eta 2013ko irailaren 11n eman zuen ontzat Eusko Legebiltzarrak. Plan horrek, 1998tik indarrean zegoen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia ordezkatu du. Beraz, aurrerantzean ESEP izango dute Udal Erakundeek hizkuntza politikak gauzatzeko tresnarik garrantzizkoena, bai bere asmo eta xedek aurrera eramateko, bai herri administrazio guztien zereginak bateratu eta koordinatzeko. Bertan ezartzen dira herri aginteen hizkuntza politikak hurrengo urteetan izango dituen irizpide estrategikoak, baita administrazio guztiek aintzat hartu behar dituzten ezinbesteko elementuak ere.

II. Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren 7.1.2. atalean (irakaskuntza / etorkizuneko erronkak) hauxe dio: *“Gune erdaldunetan nagusiki, baina baita bestelakoetan ere, hizkuntzaren jakite-mailaren eta erabileraren arteko aldea irakaskuntzan hain zuzen sumatzen da beste inon baino garbiago. Ahalegin bereziak egin behar dira, hortaz, eskolan ikasitako euskara eskolan bertan ere erabilia izan dadin. Hartara, ikastetxe bakoitza osatzen duten kideen arteko harremanak (ikasleak, hauen gurasoak eta profesionalak) euskaraz ere izan daitezzen hartu beharreko neurriekin batera, ikastetxearen eta ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak (udala, gizarte eta kultur taldeak eta enpresak) azkartuko dituzten proiektuak eta egitasmoak bultzatuko dira, bai oinarritzko hezkuntzaren ikastetxeetan, baita lanbide heziketakoetan eta unibertsitateetan ere”.*

Aurrerago, 7.3.2. atalean (kulturgintza / etorkizuneko erronkak) hauxe gehitzen du: *“Horregatik, euskara erabiltzeko aukerak areagotu behar dira, familia euskaldunei, gazteei eta haurrei lehentasuna emanez. Funtsezkoa da, halaber, euskaraz ez dakitenei euskarazko ekoizpenaren berri jakinaraztea, ahal den neurrian, arrotz egin ez dakien eta oraindik indarra duten zenbait aurreiritzi gainditu daitezzen. Euskarazko kulturak beregaina izan behar du. Alegia, ezin da izan beti erdaraz sortzen denaren itzulpena. Baina, halaber, erdaraz sortzen dena ezin da egon euskaraz sortzen denari erreparatu gabe. Elkarren ezagutza euskal gizartearen oinarri sendo bat da.”*

III. Esan behar da, bertsolaritza eta ahozko adierazmoldea duten kultur mintzabide guztiek berebiziko garrantzia izan dutela, ez bakarrik kultura tradizionalaren erroen agerpide direlako, baizik horrekin batera herri kultura tradizional hori gaur egungo kultur balio modernoekin lotzen dutelako, hain zuzen ere, publiko jantzia lantzeko bidean.

IV. Kulturgintzaren esparru horren eginkizunak aintzat harturik, Gernika-Lumoko udalak eta BBek duela urte biko ikasturtean, elkar harturik, bertsolaritza irakaskuntzan txertatzeko bidea hasi zuten.

V. Hori horrela, Udalak eta BBek elkarri onetsi zioten *Gu ere bertsotan* proiektua herriko ikastetxe ezberdinetan 2012-2013 eta 2013-2014 ikasturteetan inplantatzea xede zuen hitzarmena sinatzeko gaitasun legala. Oraingoan, hirugarren erakunde baten partaidetza gehituz (Kultur Etxea Fundazioa) eutsi egin diote konpromiso horri honako hitzarmenarekin, *Gu ere Bertsotan* 2014-2015 ikasturtean garatzeko eta, gainera, egitasmoa zentro guztietara orokortzea lortuz, inplikaturako irakaskuntza zentroekin bidean izan diren batzarrak eta ebatziak bitarteko.

VI. Aurreko guztia kontuan harturik, Udalak, Kultur Etxea Fundazioak eta BBek *Gu ere bertsotan* proiektua 2014-2015 ikasturtean aurrera eramateko elkarlana bideratzea hitzartu dute.

Hartara, aipaturako bi aldeek ondoko **KLAUSULAK** izango dituen HITZARMENA sinatu dute:

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da *Gu ere bertsotan* proiektua (ikus I. eranskina) antolatzeko Udala, Kultur Etxea Fundazioa eta BBEn arteko elkarlanaren esparrua finkatu eta arautzea.

Bigarrena.- Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmen honen indarraldia hasiko da izenpetzen den egunean eta 2015eko ekainaren 30ean amaituko da.

Hirugarrena.- Udalak eta Kultur Etxea Fundazioak bere gain hartzen dituzten betebeharrak:

Gernika Lumoko Udalak 6.200 euroko diru laguntza eta Kultur Etxea Fundazioak 3.100 euroko diru laguntza emango diote BBEri *Gu ere bertsotan* proiektua koordinatu eta gauzatzeko hitzarmen honetan xedatutako baldintzen arabera. Argi utzi behar da honako hitzarmena osotasunean indarrean izan dadin, alde batetik Gernika-Lumo Udalak eta, bestetik, Gernika-Lumoko Kultur Etxea Fundazioak, ebazpen berezia hartu beharko dutela hitzarmenarekin bat egin eta bakoitzari dagozkion konpromisoak betetzeko.

Laugarrena.- Bizkaiko bertsozale elkarteak bere gain hartzen dituen betebeharrak

BBEk betebeharrak hauek hartzen ditu bere gain hitzarmen honen indarrez:

1. *Gu ere bertsotan* proiektua, antolatzeko beharrezkoak diren bitartekoak ipiniko ditu, bai langileen aldetik, bai bitarteko materialen aldetik.
2. BBEk konpromisoa hartzen du hitzarmen honen ondorioz garatzen diren ekintzek herrian oihartzuna izan dezaten eta herriko ikastetxe guztien inplikazioa lortu denez gero (1. eranskina), horri eusteko ahalegintzea.
3. BBEk konpromisoa hartzen du hitzarmen honen ondorioz jasotako dirua bakar-bakarrik hitzarmen honen barruan onartutako xedeetarako erabiliko duela.
4. Hitzarmen honetan xedatutako zereginen ondorioz sor daitezkeen eskubide, tasa, zerga, konpentsazio edo kalte ordainak BBEk ordainduko ditu eta berak eskuratuko ditu hitzarmena zuzen eta egoki betetzeko beharrezkoak izan daitezkeen baimen eta lizentziak.

5. BBek kontabilitatean jaso beharko ditu hitzarmen honetan aurreikusitako ekarpenak.
6. Hitzarmen honen ondorioz sortutako ekintza, jarduera edo argitalpen guztietan, Gernika-Lumoko udalaren eta Gernika-Lumoko Kultur Etxea Fundazioaren lankidetzaz azalduko da modu egokian, haren irudi korporatiboaren elementuak erabilita.
7. Ikasturtean zehar BBek gutxienez bi alditan aurkeztuko die Udolari eta Kultur Etxeari *Gu ere bertsotan* proiektuaren berri. Ikasturte hasieran egitasmoa eta aurrekontua eta amaieran balorazio txostena, diru laguntza dagokion xederako erabili izanari buruzko justifikazioa barne. Ikasturtean zehar, hala behar izanez gero, edozein momentutan emango da informazioa.
8. BBek hitzarmen honen xedea den ekintzari buruz eskatzen zaion informazio guztia jarri behar du Gernika-Lumoko udaleko eta Kultur Etxeko kudeaketa organoen esku, baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren esku ere.

Bosgarrena.- Ordainketa

Udalak eta Kultur Etxeak, hitzarmen honen hirugarren klausulan adierazitako diru laguntza emango diote BBeri, horretarako xedatzen duen kontu korrontean eta BBek proiektua garatzen duen zentroetara bideratutako fakturretan murrizketa proportzionala egingo du. Proiektua garatu ondoren, BBek 2014-2015 ikasturteko memoria eta zuriketa aurkeztuko du.

Diru laguntzak hurrengo era honetara emango dira:

- 3.100 euro Euskara Arloko 5-4514-48100 diru partidaren kontura, 2015eko aurrekontutik urtarilean.
- 3.100 euro Hezkuntza Arloko 5-4515-43000 diru partidaren kontura, 2015eko aurrekontutik otsailean.
- 3.100 euro Kultur Etxea Fundazioaren diru partidaren kontura, 2015eko aurrekontutik apirilean.

Seigarrena.- Emandako ekarpenaren eta beste laguntza batzuen arteko bateragarritasuna

Gernika-Lumoko udalak eta Kultur Etxeak hitzarmen honen bitartez egingo duten ekarpena bateragarria da hitzarmen honen xede den ekintzarako BBek beste erakunde publiko zein pribatuetatik lor ditzakeen beste laguntzekin; betiere guztiak batera harturik ez badute gainditzen egingo den inbertsioaren kostua.

Zazpigarrena.- Hitzarmena bertan behera uztea

Hitzarmen hau bertan behera geldituko da:

- Sinatzaileak ados jarrita.
- Hitzarmenaren indarraldia amaitzen denean.
- Izenpetzen duen alderen batek hitzarmen honetan hartutako konpromisoak betetzen ez baditu.
- Zuzenbidean egokia den beste edozein arrazoiengatik.

Zortzigarrena.- Dirua itzultzea

Hitzarmen hau betetzen ez bada edota emandako dirua beste ezertarako erabiltzen bada ordainketak bertan behera geldituko dira eta jasotako dirua itzuli egin beharko du BBek, Udalak eta Kultur Etxeak xedaturik duten prozeduraren eta lege arauen arabera.

Bederatzigarrena.- Araubide juridikoa

Hitzarmen honek izaera administratiboa dauka, eta araubide juridiko-administratiboa erabiliko da hura interpretatu eta garatzeko; izenpetzaileek berariaz men egiten diote administrazio auzietarako jurisdikzioari.

Hitzarmen honetan xedatzen ez diren alderdi guztietan, Udalaren eta Kultur Etxearen diru laguntzak erregulatzen dituzten arauak aplikatuko dira.

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, partaideek honako dokumentu hau izenpetu dute, goiburuan aipatutako leku eta datan.

Gernika Lumoko Udaleko alkatea

Bizkaiko bertsozale elkarteko
lehendakaria,



Jose Maria Gorroño

Asier Ibaibarriaga Apoita

Kultur Etxea Fundazio-Buruak

Naiara Urberuaga

3. ERANSKINA



BERTSOLARITZEA GERNIKA-LUMO

2014-15 IKASTURTEA

Euskal Herriko Ikastolak

Euskal Herriko Ikastolak
BERTSOLARITZEA GERNIKAN

Bertso mugimenduak urteetako esperientzia dauko Gernikako ikastetxeetan Euskal Herriko Ikastolak-en eskutik. Bertso ikastaroak, bertso saioak ikastetxeetan, lehiaketak... arlo guztiok hartzen ditu gure irakaskuntza eremuak.

Urtean birritan egiten ditugu bertso ikastaroak **barnetegi formatoan**. Gorozikan eta Mendatan dagozan aterpetxeetan antolatu ditugu barnetegialdiak azkenaldian. Aurtengoak bere horreetariko batean ez bada bestean egingo ditugu, aldian aldiko ebatzia hartuta.

Ikastetxeetan **bertso saioak** egitea da beste jarduera bat gure zereginean. Bertsolari gazteak ibiltzen dira honetan, betez be bertsoan jentearrean egin gura dabenak eta lehenengo pausuak emoteko gune egokiak behar dituenak. Ikastetxeetako ikasleen aurrean, antolakuntza apal baina eragingarrian, lotsarik eta bildurrik barik kantetan dabe gazteak.

Urtearen joanean ikasitakoak frutu gozoak erakusten ditu egiten diren **bertso txapelketetan**. Batetik, BBK lehiaketea antolatzen dogu neguan: maila bikoia izaten da lehiaketa hau (18 urtera artekoen maila bat eta 23 urtera artekoena bestea). Busturialdeko eskualdeak jokatzen dau Bizkaiko beste sei eskualdegaz batera; talde honetan hartzen dabe parte gernikarrak. Bestetik, **Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketea** jokatzen da ikasturtearen atzenetan, arlo bitan, idatzian eta bat-batean.

Aurten be, ohitureari jarraituta, **Gernikan** jokatuko da idatzizko arloko **kanporaketa bat** eta **finala**, eta 2015eko edizino honetan be, gure asmoa da finalaren ostean Udaletxe plazako Kultura Etxe aurrean egitea sari banaketean.

Hona hemen 2015eko txapelketako egutegi osoa:

Idatzizkoaren kanporaketak:

Maiatzaren ...an, Ondarroako Zubi Zahar ikastolan
Maiatzaren ...an, Durangoko Kurutziaga ikastolan
Maiatzaren ...an, Gernikako Seber Altube ikastolan
Maiatzaren ...an, Trapagarango Itxaropena ikastolan
Maiatzaren ...an, Amorebieta-Etxanoko Andra Mari ikastolan
Maiatzaren ...an, Bilboko Abusu ikastolan
Maiatzaren ...ean, Mungiako Larramendi ikastolan
Maiatzaren ...n, Algortako San Nikolas ikastolan

Idatzizkoen Finala:

Maiatzaren ...an, Gernikako Seber Altube ikastolan, 15:00etan
Sariak Kultura Etxean banatuko dira 17:30ean

Bat-bateko kanporaketak:

Maiatzaren ...an, Bermeoko Eleizalde ikastolan, 14 urtera artekoak, 15:00etan

Maiatzaren ...an, Markinako Kultura aretoan, 15-16 urtekoak, 15:00etan

Maiatzaren ...an, Elorrioko Txintxirri ikastolan, 17-18 urtekoak, 15:00etan

Bat-batekoen finala:

Ekainaren ...an, Bilboko Indautxuko "El Carmen" aretoan, 11:00etan

KOSTUAK

Ondoren datorren aurrekontua txapelketearen antolakuntzan Gernikako saio biak eskatzen deuskuen diru kopurua da atalez atal banatuta.

TXAPELKETEA GERNIKAN

Txapelketea

Eskualdeko kanporaketa.....2.400 €

Bertso idatzien finala

Partaideen opariak.....1.500 €

Epai-mahaia.....900 €

Trofeoak.....1.000 €

Antolakuntza gastuak (km-ak.)250 €

Txapelketa guztira 6.050 €